



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Gorka Artola Alberdi jaunak, Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren Zuzendaritza Batzordearen lehendakariak, eman du honako

EBAZPENA

20/2021 legearen 6. eta 8. Xedapen Gehigarritik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuaren barruan, 2023ko uztailaren 3ko ebazpenean argitaratu zen onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda, eta hamar (10) egun balioduneko epea eman zen erreklamazioetarako. Epea igarota, eta erreklamaziorik izan ez denez

EBATZI DUT:

LEHENENGOA: Onartutako eta baztertutako hautagaien zerrenda (eranskinean) behin betikotzat jotzea eta Gipuzkoako Aldizkari Orokorrean argitaratu dadin bideratzea. Hautagaiak, behin-behinean, ordenatuta agertuko dira, eurek autobalorazio formularioan adierazitako puntuazioaren arabera. Ebazpen honi aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko zaio, hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

BIGARRENA: 2023ko uztailaren 3ko ebazpenean adierazitakoari jarraikiz, eskatzea Epaimahai kalifikatzaileari autobalorazioaren arabera sortutako hautagai-zerrendako lehen hamar (10) eskabideak azter ditzan. Esperientzia orokorra eta espezifikoa zehatzago egiaztatze aldera, Gizarte Segurantzak emandako biritza laboral eguneratua eskatuko die Epaimahai kalifikatzaileak zerrendako lehen sei hautagaiei.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Bergarako Udal Euskaltegiko iragarki taulan eta Udalaren web orrian ere argitaratzea.

Hau da Lehendakariak agindu eta sinatu duena, Bergaran 2023ko uztailaren 17an.



ERANSKINA

BI IRAKASLE PLAZA OSATZEKO DEIALDIA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

ONARTUAK:

NAN	IZEN-ABIZENAK	AUTOBALORAZIO FORMULARIOAN ADIERAZITAKO PUNTUAZIOA
***6504**	ARAKAMA ALKAIAGA, AINARA	100
***8085**	ISASTI AGIRRE, M.KARMEN	100
***9608**	LARRAÑAGA ARIZAGA, ITZIAR	100
***8654**	MARKINA IGARZA, KRISTINA	96,94
***8567**	SEGURA ARKAUZ, AINHOA	96,90
***9233**	JAUREGI LEJONA, ARAITZ	96,64
***4498**	AIERBE AUZMENDI, ANE ELIXABET	92,76
***1139**	UGARTE ABIA, GOIZALDE	80
***7229**	AGIRREGABIRIA AGIRRE, KARMELE	80
***3167**	FELLI GORRICO, GISELE	32,99
***4626**	LERTXUNDI BEDIALAUNETA, EÑAUT	2,5

Baztertuak: Bat ere ez